

## Ekologoen izurritea

AMODIOAREN ARBOLA eta Judaren arbola, *Cercis siliquastrum*, arbola beraren izen pareta, horixe pareta! Makina bat traizio badakar amodioak! Saldukeriaren habia ez al da, bada, Judea? Erljioen zokoa...

Zurikeriaz gain, erlijioek badute hurkoarekiko errukia, benetako errukia. Juda salduak ere izango zuen herrenen bat... Judaren arbolak behintzat bai. Arbola, landarea izaki...

Sagardi, madaridi, olibadi eta bestelako fruitu arboladetan lankide bikaina izan daiteke Judaren arbola. Hara, bada. Psila izeneko intsektu batek Judarena erasotzeko ohitura du. Psila horrek ekain aldera arte jotzen du, eta udaberria aldera, hura jaten duten *Orius*, *Chrysoperla* eta, batez ere, *Anthocoris* generoetako harrapariak inguratzen dira. Ekainetik aurrera zer janik ez dutenez, aldameneko fruitu arboletan orduan puri-purian dauden beste psilak jatera mugitzen dira. Judarenak beste arbola horietako izurri horren kontrol biologikoa ahalbideratzen du. Psilak ez du ikaragarritzko kalterik sortzen sagarrondo, madariondo eta olibondo-

etan, baina, haren ninfak iraitzitako melaza edo kaka gozoa onddoei erasotzen diete eta fruituak zikin itxuraz eta likatsu geratzen dira. Itxura ederreko fruitu garbiak izateko Judarena.

*Buddleja davidii* zuhaixkak, Daviden budleia edo tximeleten zuhaixka deituak, antzeko lana egiten du. Baratze eta fruitu arboladi ertzetan aldatzen da. Uda partean loraldi ikusgarria du, kono-itxurako lore multzo handiak irekitzen ditu, nektarrez eta usainez gainezka, eta haietara milaka tximeleta inguratzen dira. Era berean, kanabera formako adarrak ditu, barrutik hutsak. Tarte hori liztor onuragarri askok bere habiak egiteko erabiltzen dute. Liztor horiek izurriteak sortzeko gai diren intsektu ugarien beldarrak akabatzen dituzte. Zuhaixka inbaditzaile izendatu dute eta zenbait biologok eta ekologok ezin dute begien bistan ikusi ere egin. Gerra santua deklaratu diote. Lur sail abandonatuak harrapatu eta



PETER CLARKE-CC BY SA

*Buddleja davidii*.

bertakoen garapena eragozten iaioa bada ere, mesedeak egiten badaki. Zein jakintsuk du bere burua landare bat “judatarra” den edo ez izendatzeko gai? Eta Biologo eta ekologoen izurritea nork eragotziko du?

Gudan tximeleten zuhaixka akabatzen badute ere, banbuek bezala kanaberak (*Arundo donax*), intsusak (*Sambucus nigra*), deutziak (*Deutzia gracilis*) eta abarrek prest dituzte antzeko adar hutsak liztor mesedegarriak apopilo hartzeko. ■



## Hortentsia santua

GEHIEN egin didaten galderetako bat izango da: hortentsia noiz eta nola inausi behar dut? Bada, hemen erantzuna, Zeraingo Benefiziaduneko hormaren babesean.

Hortentsiak, neguan begietan gordeta jasotzen ditu hurrengo udaberrian irekiko dituen loreak. Era berean zuhaixka da eta, lorearen tamainari eutsi nahi bazaio, etengabe gaztetu behar da.

Inausketak bi helburu ditu: gaztetu eta loratu. Gaztetzeko beheko barrenetik moztu adarrak eta loratzeko adarrak osorik utzi, begietako loreak ireki daitezten. Bi helburuak uztarri berean nola lotu? Erraz asko. Begira argazkiari: adar gehienak (lautik hiru...) osorik utzi eta gutxi batzuk (laurdena) behe-behetik moztu. Uztitakoak loratuko dira eta moztutakoak adar gazte gazteak emango dituzte, hurrengo urteetan indarrean loratuko direnak. ■